



IKUSMIRA

EZ DA GAITZIK ONIK EZ DAKARRENİK

Iragan asteartea, Zumarraga, 14.00ak. Enpresa-
ren bideragarritasuna defendatzeko egindako la-
nak fruiturik eman ez eta Arcelor Mittal enpresa-
ren atarian diren langile, senide eta lagunek
isiltasuna entzun dute, makinen itzaltzeak eragin
duen isiltasuna. Kale gorria dute epe laburreko
etorkizun 350 langilek; langabeziaren besoen
ongieterria dute epe laburreko etorkizun 350
langilek. Esaerak dioen bezala, baina, ez da gai-
tzik onik ez dakarrenik. Une gogorrenetan atera-

tzen du gizakiak bere aurpegirik onena; une gogorrenetan gailentzen zaio gizatasuna gizakiari.
Gizakiak, mundua suntsitzen ari den zera horrek, onetik ere baduelako, enpatia zer den ikasia
duelako, sentitzen dakielako. Arcelor Mittalen kasua, baina, ez da lehena, ezta azkena ere; ez eta
bakarra. Zoritxarrez, krisi ekonomikoaren aitzakiapean, izan dira isiltasuna oihukatu duten beste
zenbait enpresa ere. Baina horretan ere ez da gaitzik onik ez dakarrenik, izan baita makinak gel-
ditu ostean olioztatu eta berriro martxan jarri duenik. E. Arruti



Gotzon ARANBURU